

## **BAINA NIK, HIZKUNTZA LARREKOA, NAHI HAUNAT ERE NORANAIKOA**

1968an izan zen. Urte horretako urrian aurkeztu zuen Arantzazun Koldo Mitxelenak euskararen batasunerako proposamena biltzen zuen txostena. Euskaltzaindia sortu zeneko berrogeita hamargarren urteurrena betetzen zen urtean, beraz, gorpuztu zen Arantzazuko santutegian egindako biltzarrean. Mendetan zehar zenbait hizkuntzalarik, euskaltzalek eta idazlek egindako aldarrikapenak erantzuna izan zuen: euskarak bazuen, jada, zeregin jasoetarako, literaturarako edota irakaskuntzarako beharrezkoa zuen hizkuntza-aldaera estandarra. Ezina zirudiena, bada, lortu zen.

Dena dela, ez da izan bide samurra euskara batuak egin behar izan duena, eta ez da izango erraza aurrera begira egin beharrezkoa, azken finean, bidea egin beharra izango baitu. Eta bidea egiteko duenak bidegileak beharko ditu bere lana arrakastaz burutu nahi badu. Horixe dagokigu XXI. mendeko euskaldunoi: euskarak mende honetan bide egiten jarrai dezan euskara aberasten eta saretzen jarraitzea, haririk eten gabe irutea.

Ez zen goizetik gauerako kontua izan, ordea, Mitxelenak Arantzazuko biltzarrean aurkeztu zuen txostenak biltzen zuen proposamenaren mamia. Arestian aipatu bezala, ibilbide luze eta malkartsu baten ondorioa izan zen.


## **AURREKARIAK**

Euskara batuak egin duen bidean mugarri nagusienetako bat Euskaltzaindiaren sorrera izan zen. XX. mendearen hasieran indartu zen Euskararen Akademia sortzeko eskakizuna, eta 1918-19 aldian gorpuztu, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako diputazioek eta Ipar Euskal Herriko euskaltzale esanguratsuek –Ipar Euskal Herriko lurraldeek ez baitzuten erakunde erkiderik– sustatuta.

R.M. Azkue izendatu zuten euskaltzainburu. Apaiz lekeitiarrari egokitu zitzaion, beraz, euskararen akademia abiarazteko lana. Sortu ahala (1920an), hiru helburu ezarri zitzaikion akademiari: ortografia arautzea, hiztegia zehaztea eta Euskal Herri osorako literatura hizkera eraikitzea. Arturo Campionek eta Pierre Broussainek hartu zuten batasunaren egitasmoa gertatzeko ardura, eta 1920an aurkeztu zuten proposamena biltzen zuen txostena. Ez zuten egitasmo zehatzik aurkeztu, baina gipuzkeraren edo lapurteraren aldeko hautua egitearen aldeko agertu ziren. Ez zuen arrakastarik izan, batasunaren aldekoek gain, aurkakoak ere beti izan baititu euskarak inguruan.

## **1960KO HAMARKADA**

Euskal Herriaren historian aldaketa handirik gertatu bada, 60ko hamarkada aipatu gabe ezin utzi. Bizkaian eta Gipuzkoan ez ezik, Araban eta Nafarroan ere industriak gorakada handia izan zuen, eta Iparraldean Baiona-Angelu-Miarritze hiribildua ere sorrarazi zuen egoera hark. Kanpoko jende asko etorri zen EHra, eta zenbait euskararenak egin zuela pentsatu zuen. Hegoaldea Francoren diktadurapean bizi zen, baina, gertakizun historikoek hala baldintzatuta, nazioartean jarrera irekia izatea eskatu zitzaion Espainiako garaiko gobernuari. Jarrera-aldaketa hori probestu nahian, kultura-arlora ere hedatu zen garaiko egoera iraultzeko gogoak, eta grina horren ondorio izan ziren Ez dok amairu taldea, GAUR artisten taldea, Jakin aldizkaria, Ikastolen mugimendua, helduen alfabetatzea, eleberrigintza modernoa aldarrikatzen zuten idazleak...



Testuinguru horretan eman zitzaion euskara batua sortzeko prozesuari ezinbesteko bultzada. Zeregin horretan aritu zen Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi". Hizkuntzalari eta pentsalari donostiarrak kultur hizkuntza batu baten beharra azpimarratu zion Euskaltzaindiari, eta batasun horretarako bidea ere urratu zuen. Batasunerako bidea zehazteari heldu zion, eta hala gauzatu zen bide hura 1964an Baionan. Bertan egindako bilkuran herrialde gehienetako ordezkariak elkartu ziren, eta euskara arautzea helburu zuen txosten bat bateratu zuten. Urrats handia izan zen euskara batuarentzat.

Txillardegirekin bateratsu aritu zen Gabriel Aresti idazlea ere. Euskal idazleek literatur hizkuntza baten beharra zutela argi zuen, eta bizi zuen kezkaren isla izan zen poeta bilbotarrak idatzi zuen Maldan Behera poema. Inolako aurrekaririk gabe, gerora gutxi-asko gorpuztuko zen euskara estandarrean idatzi baitzuen.

## 968KO BILTZARRA ETA ONDORENGOAK

Koldo Mitxelenari eman zion Euskaltzaindiak euskararen batasunaren ardura. Ordurako izen handia zuen hizkuntzalaria zen Mitxelena, eta egoeraren larriak eskatzen zuen mailako bidaidea izan zela ezin uka. Oro har Baionako bilkuran adostutakoak izan ziren Mitxelenak Arantzazura eraman zituenak. Han adostu zen euskara batua, baina Euskaltzaindiak Mitxelenaren txostenari babes ematearekin batera piztu zen, batez ere, Hego Euskal Herrian zalaparta: h-aren auzia izan zen euskara batuaren bidean gaintu beharreko lehenengo oztopo handia.

Egoera nahasi horretan agertu zen euskara batuarentzat ezinbesteko izan zen Luis Villasante euskaltzainburu berria. 1970ean izendatu zuten akademiako buru, eta berari egokitu zitzaion euskararen batasuna egonkortzeko lana. Hizkuntzalaria zen, euskararen ezagutza handikoa, eta bere ekimenez euskararen batasuna sendotzeko bidean Euskaltzaindiak prozesuaren gidaritza hartu zuen.

Hamar urteko epea eman zion Euskaltzaindiak euskara batua erdiesteko bideari. Hala, 1978an Bergaran eta Arrasaten egindako biltzarretan berretsi zen aurretik Arantzazun adostutako lana. Kontrakoak baziren arren, herritarren babesak indarra emanda aurrera jarraitzea erabaki zuen Euskaltzaindiak. Ikastolek ere bat egin zuten Arantzazun onartutako txostenarekin, eta euskara batuaren aldeko hautua egin zuten.

## EGUNGO EGOERA

Euskararen aldeko ekimen ugari abiatu ziren garai hartan Euskal Herri luze-zabalean. Euskara batuak ibilbide oparoa izan du, baina egitekoak ez dira bukatu, ezta gutxiago ere.

Euskarak egoera berrietara egokitzen asmatu behar du, baldin eta bere iraupena ziurtatu nahi badu. Bidaide berriak behar ditu etengabe eguneratzeko eta aberasteko bidean. Euskara batuaren erronkak euskararen erronkak dira, gaur egun. Esan-indarririk ez omen du, eskolarako hizkuntza omen da, artifiziala da... Aspaldi zioen Axularrek horiek guztiak erabiltzailearen gabeziak zirela, ez hizkuntzarenak. Noranahiko hizkuntza nahi badugu, euskaldun oso-osoak izan nahi badugu, ekin egin beharko diogu ikaragarritzko lan eder honi!



## AZALPENA IRAKASLEENTZAT

Amaia Ballesterosek eta Juan Luis Zabalak bikain laburtu zuten Euskaltzaindiak eta euskara batuak egin duten bidea Euskaltzaindia, euskararen 100 urteko laguna komikian. Euskara Batuaren eskuorrian ere labur adierazi dira XX. mendean euskara batuak izan zituen mugarrak. Nola osatu, ordea, orain arte egin den bidea? Euskal Herri osoko ikuspegitik egin da orain arteko ibilbidea. Ez da jaso Euskal Herriko herrietan nola bizi izan zen eta nola bizi den euskara batuak egin duen ibilbidea; ez da jaso, finean, euskara batuaren herri-mailako historia soziala. Lan horretan jarri nahi ditugu XXI. mendeko euskaldunak. Ikerketa xumeak eginez, herrian euskararekin zerikusia duten erakundeei, pertsonai buruzko ikerketatxoak egin ondoren, euskara batuak egin dien ekapena eta eurek euskarari egiten diotena islatuko dute komiki batean. Horretarako, herriko euskalgintzaren gaineko hausnarketa egin beharko dute:

- BA AL DA EUSKARA ELKARTERIK ZUENEAN?
- NOIZ SORTU ZEN IKASTOLA? NOLA?
- ZEIN IZAN DIRA ERREFERENTZIAZKO IRAKASLEAK?
- BA AL DA EUSKARAZ KANTZATZEN DUEN TALDERIK? ANTZERKI-TALDERIK? IDAZLERIK?
- BA AL DA EUSKALTZAINIK ZUENEAN? URGAZLERIK?
- BA AL DA EUSKALTEGIRIK? GAU ESKOLARIK IZAN AL ZEN? NOR ZEN IRAKASLE?
- BA AL DA BERTSO-ESKOLARIK? BERTSOLARIK?
- BA AL DA EUSKARAZKO HEDABIDERIK?
- EUSKARAZ LAN EGITEN DUEN IKERLARIRIK, EDO ZIENTZIALARIRIK?
  
- ZEIN EKARPEN EGIN DIO EUSKARA BATUAK HORIETAKO BAKOITZAREN EGITEKOARI?

Eskuorrian aipatutako garaia kontuan izanda, herri-mailan euskalgintzak egin duen bidea azalduko duzue komiki batean. Talde bakoitzak erreferentziazko talde edo pertsona bat baliatuz osatuko du lana; era horretan, lan guztiak jasotzean, herrian euskarak egin duen eta egiten ari en bidearen berri izango duzue



EUSKARA  
BATUA